

Immunoterapia tratamendua jasotzen ari zara. Horrek esan nahi du tratamendu-zikloetan albo-ondorio batzuk ager daitezkeela, kontsultan adierazi dizuten bezala. Horretarako, erabilgarriak izan daitezkeen zainketa orokor batzuk egin ditzakezu.

<u>ALBO-ONDORIO OHIKOENAK</u>	<u>GOMENDIO OROKORRAK</u>
• ASTENIA (energia edo bizitasun faltaren sentrazioa). • LARRUAZALEKO ERUPZIOA, PRURITOA (azkura horrek hazka egiteko gogoia eragiten du) • BEHERAKOA. • GIHARRETAK ETA HEZURRETAKO MINA, ARTRALGIAK. • EZTULA ETA DISNEA. • ALTERAZIO ENDOKRINOAK (kontrol analitikoak).	<u>LARRUAZALAREN ZAINKETAK</u> - Xaboi eta xanpu leunak erabili eguneroko garbiketarako. - Muturreko tenperaturak saihestu. - Eman egunero krema hidratatzaile hipoalergenikoa gorputzean, eskuetan eta oinetan barne. - Eguzkitan egonez gero, erabili 50 baino FPS handiagoko eguzki-babesa. <u>HESTE-PATROIAREN ALTERAZIOA</u> - Egunean 1,5 litro likido edan. - Heste-patroia berreskuratu dieta eginez (astringentea beherakoa bada / zuntz askokoa idorreria bada). - Egoerak bere horretan jarraitzen badu edo larriagotzen bada, galdetu. <u>ASTENIA/NEKEA</u> - Atsedenaldiak luzatu. - Jarduera jakin bati eutsi: paseatu, bizikleta, lanak egin...

Lehen deskribatutako albo-ondorioetako bat agertzen bada, jarri harremanetan erizaintzako kontsultarekin.

- Erizaintzako kontsulta 2, telefono-zenbakia: 945007468 (astelehenetik ostiralera 10:00etatik 14:00etara).
- Ordutegi horretatik kanpo edo beste edozein kontsulta egiteko, jarri harremanetan Call Center-ekin 945007500 telefono-zenbakian.